

**Mikel
Bildosola
Agirregomezkorta**

Getxoko
udalerako
alkategaia

–
Candidato
a la alcaldía
de Getxo

ehbildu



**Maite
duzun
Getxo**

EGINGO DUGU.

Getxo hobetzeko ilusioa eta konpromisoa

EH Bildu Getxoko kideok ilusio handiz aurkezten gara udal hauteskundeetara. Sinesten dugu gure herria hobeto eta beste modu batera kudeatu daitekeela, eta horretarako prest gaude.

Auzo-bizitza izango duen herri bat nahi dugu. Bere inguru berdeak eta eraikin historikoak zainduko dituen herria. Denon neurririk kultur eta kirol jarduerak antolatuko dituena; etxebizitza sozialak sustatuko dituena; zaintzak erdigunean jarri eta feminismoa, LGTBIQ+ politika integralak eta euskara ardatz dituena; hemen bizi nahi dutenkin solidarioa eta irekia dena, alegia.

Inposiziorik gabe kudeatzen duen Udala behar dugu, HAPOrekin edo Lope de Vegako eraikinekin gertatutakoa bezalakorik inoiz gehiago ez errepiatzeko.

Auzokideak entzungo dituen Udal Gobernua behar dugu, gardentasunez eta parte-hartzea erraztuz erabakiak hartuko dituena. Herritarren arazoekin enpatia eta sentsibilitate handiagoa izango duena, iruzurrik eta bezerokeriarik gabe. Eta, gainera, kudeaketan eraginkorragoa dena.

*Gure herria hobeto eta
beste modu batera kudeatu
daitekeela uste dugu*

Bestelako herri-eredu hau bideratzeko talde prestatua dugu, ideia eta proposamenez beterik datorrena, konpromisoz eta zintzotasunez jardutera.

Alternatiba gara!



Mikel Bildosola
Agirregomezkorta
Ekonomian lizenziaduna.
Igeriketa entrenatzalea eta
munduko txapelduna



Oihane Zelaia Calderón
Arrandegiko langilea.
Errromoko herri
mugimenduko kidea



Olaia Bilbao Onandia
Automatika eta Elektronika
Industrialen ingeniarria eta
Eusko Trenbide Sareko langilea

**EGINGO
DUGU.**

Participar más y gestionar mejor

Desde EH Bildu Getxo afrontamos las próximas elecciones municipales con ilusión y optimismo. Tenemos el convencimiento de que nuestro pueblo se puede gestionar mejor y de otra manera. Y estamos dispuestas a ello.

Queremos un pueblo con vida de barrio, que cuide su entorno natural y su patrimonio histórico; un pueblo con un pequeño comercio fuerte, con vida cultural y asociativa; con vivienda social accesible; un pueblo euskaldun y feminista, que ponga los cuidados en el centro; con políticas LGTBIQ+ y que sea acogedor con las personas que quieren venir a vivir a Getxo.

Nos merecemos un Ayuntamiento que gestione sin imposiciones, y no como ha ocurrido con el nuevo PGOU o los edificios de Lope de Vega.

Necesitamos un Ayuntamiento que escuche a sus vecinos y vecinas, que sea más transparente en sus decisiones y más participativo. Que tenga más empatía y sensibilidad con los problemas de la gente. Y además, que gestione con mayor eficacia.

Necesitamos un Ayuntamiento más transparente que escuche a sus vecinos y vecinas

Queremos otro modelo de pueblo y tenemos un equipo dispuesto y preparado para llevarlo a cabo con propuestas, ideas y sobre todo, honestidad y compromiso.

Abante Getxo!



Ibon Rodríguez Larrinaga
Kazetaria eta Kontsumobide erakundeko komunikazio teknikaria



Eleder Barañoa Mentxaka
Ingeniari informatikoa eta IT sistema prozesuen arduraduna



Ane Larraoetxea Vivar
Lehen Hezkuntzan graduaua. Algortako mugimendu feministako kidea



Gure taldea

Nuestro equipo

@ehbildugetxo @GetxokoEH Bildu EHBilduGetxo

getxo@ehbildu.eus www.getxo.ehbildu.eus



- 1 Mikel Bildosola Agirregomezkorta
- 2 Oihane Zelaia Calderón
- 3 Olaia Bilbao Onandia
- 4 Ibon Rodríguez Larrinaga
- 5 Eleder Barañano Mentxaka
- 6 Ane Larrañeta Vivar
- 7 Iñaki Legarreta Ostolozaga
- 8 Idoia Aranguren Onaindia
- 9 Bingen Saitua Iruretagoiena
- 10 Rozio Luces Góri
- 11 Haizea Arruza Rodiño
- 12 Julen Nafarrate Aurrekoetxea
- 13 Marisol Bernabeu Martínez
- 14 Garazi Basterretxe Barea
- 15 Aitor Gallastegi Bilbao
- 16 Julene Samuel Ipuia
- 17 Alicia Mansoa López
- 18 Txema Elorza Valdemoro
- 19 Irune De la Maza Olagorta
- 20 Aritz Landeta Terceño
- 21 Miren Kareaga Espiniella
- 22 Arantza Gutiérrez Paz
- 23 Paul Benito del Valle Angulo
- 24 Pedro Gutiérrez Gutiérrez
- 25 Helena Franco Ibarzabal
- 26 Nerea Guijarrubia Garzia
- 27 Uxune Iriondo Urbistazu
- 28 Iñaki Gonzalo Casal «Kitxu»

Talde anitza eta eskarmentu handikoa osatu dugu hurrengo legegintzaldirako. Adituak eta arituak administrazioan eta kudeaketan; auzoetan eta bestelako borroketan oso implikatuta gauden getxoztarrak gara; euskaltzaleak, kulturzaleak, ekologistikak, feministikak, gazte mugimendukoak, pensionistikak, dendari txikiak, kirolariak eta abar.

Contamos con un gran equipo para la próxima legislatura. Somos personas con experiencia en la gestión y en la administración; vecinos y vecinas implicadas en sus barrios y en varias luchas; pensionistas, militantes del movimiento juvenil, artistas, deportistas, personas organizadas en asociaciones culturales, emprendedoras, etc.

Hirigintza-eredu berri bat: auzo biziak, etxebizitza sozialak eta berdeguneak

HAPO BERRI BAT BEHAR DUGU. ERAIKUNTAZA MASIBOAN ETA ESPEKULAZIOAN OINARRITZEN EZ DEN PLANA. AUZOKIDEEN BEHARRIZANAK OINARRIAN IZANGO DITUEN HIRIGINTZA-EREDU BERRI BAT BEHAR DUGU. INPOSAKETARIK GABE.



Bestelako herri-eredu bat egingarria dela uste dugu. Azken urteetan asko eraikida Getxon, baina ez da etxebizitzarekin daukagun arazoa konpondu, batik bat etxebizitza libreak eta urbanizazioak eraiki direlako, eta gazteek alde egin behar izan dutelako.

Zoritzarrez, orain ezarri nahi diguten HAPO berria ildo beretik doa. Gure iritziz, betiko errezetak alboratu eta beste plan bat onartu beharko genuke, getxoztarrok behar dugunari aditu eta erantzungo diona.



Erabateko lehentasuna eman nahi diegu etxebizitza sozialei; herrigunean eraiki daitezela sustatu, zerbitzuak eskura izateko. Urbanizazioen eredua ere baztertu nahi dugu, auzo biziak nahi ditugulako, kohesiotuak, komunitatea sortu eta elkar zaintzeko.

Auzoetan oinezkoentzako espazio berriak sortzea proposatzen dugu. Adibidez, metroko ibilbidea lurperatuz, Algorta eta Bidezabal geltokien artean boulevard berde bat sortuko genuke.

Ondare historikoa ere babestu nahi dugu. Eraikin berezi eta historiko ugari eraitsi dizkigute urte gutxian. Eta, jakina, naturguneak mantendu nahi ditugu, Azkorri-Mimenaga-Bolue lotuz. Ez ditugu gure herriko azken altxor horiek porlanez bete nahi.

▶ Proponemos la creación del anillo verde de Getxo, incluyendo la recuperación ecológica de Mimenaga, con un parque inundable, bosque de ribera, zonas silvestres, bosque autóctono, etc. Actualmente este espacio está degradado y lleno de cemento, puesto que acogió un concesionario. Los terrenos pertenecen a Getxo y a Berango.



Otro modelo de pueblo es posible

Desde EH Bildu apostamos por un cambio de modelo urbanístico en Getxo. Durante los últimos años se ha construído mucho en nuestro pueblo, pero no se ha dado solución al problema de la vivienda, puesto que se han priorizado viviendas libres y urbanizaciones.

Lamentablemente, el nuevo PGOU (Plan General de Ordenación Urbana) sigue la misma línea. En EH Bildu creemos que otro modelo de pueblo es posible. Un modelo alejado de las viejas recetas y de la burbuja inmobiliaria. Por ello, proponemos retirar el actual PGOU y aprobar un nuevo plan que tenga como base las necesidades de la gente.

Por ejemplo, dando los primeros pasos para soterrar el recorrido del metro a su paso por Getxo, creando un gran boulevard verde en zonas como entre Algorta y Bidezabal, con zonas peatonales, bidegorri, etc.

La situación del patrimonio histórico de Getxo también es preocupante. En los últimos años se han derribado numerosos edificios con valor histórico y arquitectónico. Desde EH Bildu proponemos aumentar el número de edificios protegidos y otorgar ayudas para su rehabilitación y cuidado.

Y por supuesto, creemos que debemos preservar nuestros entornos naturales. Apostamos por crear un eje verde que une Azkorri, Mimenaga y Bolue. No queremos llenar de cemento las últimas zonas verdes que le quedan a Getxo.

Debemos proteger nuestro patrimonio histórico y evitar más derribos de edificios con valor arquitectónico y arraigo

Hamabost proiektu zehatz getxoztarron bizitzak hobetzeko



Impulso a las viviendas sociales, sin especulación

- Prioridad para las viviendas sociales en régimen de alquiler y de propiedad municipal.
- Incentivar la movilización de los más de 900 pisos vacíos de Getxo.
- Aumentar las ayudas a la emancipación juvenil y mantenimiento en los años posteriores.
- Otorgar ayudas para rehabilitar y segregar viviendas.
- Regular los pisos turísticos, con especial incidencia en el Puerto Viejo de Algorta, para evitar la gentrificación.
- Promover las viviendas colaborativas.
- Cambiar el modelo urbanístico de pueblo dormitorio: no queremos más urbanizaciones aisladas.
- Habilitar viviendas sociales en el lugar del cuartel de la Guardia Civil de Algorta.
- Abrir una Oficina Municipal de Vivienda que de una solución integral a la problemática.

Euskara eta kultura plazara! Zerbitzu eta azpiegitura duinak

- Kultur ekipamendu txikiak auzoetan.
- Diru-laguntza gehiago kultur elkartetan eta jai batzordeei.
- Kultura kalera eta auzoetara hedatu.
- Muxikebarri eta RKE herriko sortzaileei ireki eta hobeto kudeatu. Prezio merkeagoak eta kultur-bonoa sortu. Azpikontrataziorik ez.
- Alangoko gasolindegian arte espazio berri bat sortu, herriko artistek autogestionatuta.
- Euskararen erabilera bermatu Udalean, Kultur Etxean, Getxo Kirolaken, Udaltzaingoan...
- Deialdi publiko guztietan euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatu.
- Euskara sustatzeko planak merkatartzarekin, ikastetzeekin, aisialdian, kirolean...
- Getxoko euskalkiak irauteko neurriak hartu.
- Euskarazko kultur egitaraua indartu.
- Euskara harrera-hizkuntza izatea.



Ampliación de la red de bidegorris, auzu-taxi...

- Puesta en marcha del Getxobus que une barrios como Zubileta o Andra Mari con servicios como el metro, ambulatorios...
- Extender la red de bidegorris de forma funcional, y no solo para pasear: Maidagan, Algortako Etorbidea, mejoras en Telletxe...
- Servicio de auzu-taxi para personas con necesidades o dificultades de movilidad.



Gaztetxeak, ikasteko gelak eta kultur egitaraua gazteentzat

- Lokal autogestionatuak bultzatu eta gaztetxeak babestu. Desalojo gehiagorik ez!
- Ikasteko espazio gehiago sortu, taldean ikasteko aukera emanet, ordutegi zabalagoetan.
- Gazteentzako eskaintza sendotu eta merkatu: kultura-bonoa, rokodromo, entsegu-lokalak...
- Bultzada alokairuzko etxebizitza sozialentzat.



Politika feminista eta zaintzak erdigunean

- Indarkeria matxistari aurre egiteko plan integrala: zerbitzu propioa, prestakuntza planak, bestelako maskulinitateak landu...
- Berdintasun Zerbitzua indartu: teknikari eta baliabide gehiago, azpikontratazio barik.
- Zaintzen ardura partekatua sustatu eta zerbitzu publiko-komunitarioa sortu.
- Etxeko langileen erregularizazioa bideratu.



Protección y puesta en valor del patrimonio histórico

- Aumentar el catálogo de edificios protegidos de Getxo. El patrimonio de nuestro pueblo no son sólo palacios, también baserris.
- No permitir el derribo de edificios como los de Lope de Vega, antigua Haurtegi de Algorta, Maidagan, bajada de Arrigunaga...
- Regular el paisaje arquitectónico del municipio.
- Ayudas para la rehabilitación y conservación.



Ludotekak, txikiguneak eta parke estali gehiago umeentzat

- Ludoteca berri bat Algorta erdigunean eta txikiguneak auzoetan, euskara oinarri hartuta.
- Jolasleku gehiago estali eta orain daudenak hobetu (haize eta euritik babesteko aterpeak).
- Umeentzako gune basati eta berdeak.
- Kalean jarduerak egin, Getxolandia hobetu, udaleku gehiago antolatu, egitarau merkeagoa...



Medidas y soluciones para el pequeño comercio

- Crear un fondo local de inversión.
- Poner en marcha la tarjeta «Getxoztarra» con filosofía de moneda local.
- Prohibir centros comerciales en Getxo.
- Priorizar el pequeño comercio en las contrataciones públicas.
- Ayudas para la transmisión del comercio.
- Habilitar un parking para autocaravanas.



Un pueblo diverso, solidario e intercultural

- Crear una Oficina Municipal de Migración.
- Mediar para facilitar el alquiler a personas migrantes. Ayudas con el empadronamiento.
- Facilitar el aprendizaje del euskera a personas migradas. Impulsar el intercambio cultural. Garantizar la presencia del euskera.
- Trabajar la interculturalidad de forma transversal: deporte, fiestas, Casa de las Mujeres...



«Getxo Abentura» sortu eta kirol azpiegiturak hobetu

- «Getxo Abentura» gunea sortu Errrotaxun: skate pista publikoa, rokodromo, tirolinak...
- Frontoi ireki berria.
- Azpiegiturak hobetu, Gobela eta Andra Mari kirldegietan batik bat. Fadurako igerileku txikia estali.
- Kirolean euskararen erabilera indartu.
- 60 urtetik gorakoentzat ikastaroak areagotu.



Centros de día en los barrios y autonomía y autogestión para las personas mayores

- Apertura de centros de día públicos en los barrios.
- Facilitar los trámites municipales con atención presencial, también en las oficinas del Ayuntamiento.
- Impulso a los cursos deportivos y culturales para mayores de 65 años.
- Nueva residencia municipal, puesto que el número de plazas que se ofrecen actualmente es insuficiente.
- Medidas para hacer frente a la soledad en la vejez.
- Respeto a la voluntad de las personas mayores, y respeto a su autonomía y su autogestión, no como ha ocurrido con Ibar Nagusien Etxea de Romo.




Getxoko eratzun berdea sortu: Azkorri-Mimenaga-Bolue babestu

- Getxori geratzen zaizkion azken berdegune eta landak babestu. Inguru basatiak eta ez-artifizializatuak mantendu.
- Toso, Muru, Diliagoikoa, Martiturri, Salsidualde, Dendariena eta Arteaga ez-urbanizagarri izendatu.
- Elikadura subiranotasuna indartu eta karbono emisioak jaisteko neurriak hartu.
- Mimenagako padura ekologikoki berreskuratu.
- Auzo-bideak berreskuratu eta oinezkoen bideen katalogoa kaleratu.
- Getxoko ibaiak zaindu: Kandelu, Gobela, Bolue...
- Txakurren aisialdirako espazio gehiago egokitutu eta mantenimendua hobetu.



Consultas populares y transparencia en la gestión

- Organización de consultas populares en temas de calado como el PGOU. Si se quiere se puede. Solo es cuestión de voluntad.
- Transparencia en las contrataciones públicas. Ni un caso de enchufismo.
- Paneles informativos para asociaciones.
- Bajada de sueldos a políticos y asesores.



Gestión directa de los servicios sociales y aumentar su presupuesto y personal

- Aumentar el presupuesto y el personal de los Servicios Sociales. Gestión directa del servicio municipal y atender las demandas del personal.
- Gestión pública y comunitaria del Servicio de Atención Domiciliaria.
- Reforzar los recursos para la atención psicológica y el asesoramiento.
- Atención específica a trabajadoras del hogar, trabajadoras internas y personas en situación legal «irregular».
- Proyectos de prevención comunitaria con jóvenes y niños/as en los barrios.

Trantsizio ekologikoa bultzatzeko neurriak: jangela publikoa, eguzki-plakak...

- Lehenengo sektorea bultzatzeko plan integrala. Andra Mariren dinamizazio ekologikoa trantsizio ekologikoagaz lotu.
- Energiaren Udal Agentzia sortu, multinazionalen kontroletik ihes egiteko. Eguzki-plakak eraikin publikoetan.
- Komunitate energetikoak sortzeko laguntzak.
- Txirotasun energetikoari aurre egiteko neurriak.
- Udal jangela publikoa sortu (egoitza, ikastetxeak...) eta tokiko ekoizleekin kudeatu. Kilometro zero filosofia.
- Hobari fiskalak organikoa errefusatik banatzen duten herritarrentzat. Konpost-gune txikiak auzoetan.
- Turismo-eredua aldatu. Gurutza-ontziak mugatu eta ingurumen-tasa ezarri.

ehbildu
GETXO

*Quince proyectos
para mejorar la vida
de la gente*

**Marisol Bernabeu Martínez**

VECINA DE ZUBILETA

Quienes vivimos en Aldapa, Zubileta o Salsidu también necesitamos servicios: un Getxobus que conecte los barrios para subir al centro, a los centros de salud, playas o Fadura; programación cultural en los barrios, etc.

**Julene Samuel Ipuua**

ANDRA MARIKO AUZOKIDEA

Gazteok gure herria uztera kondenatzentzen gaituzte. Getxon etxebizitzaren preziorik garestienak ditugu, eta gainera gazteak aitzakia modura erabiltzen gaituzte espekulazioa eta negozioa bultzatzeko. Ez gure izenean! Alokairu soziala orain!

**Iñaki Legarreta Ostolozaga**

VECINO DE ROMO

No queremos más imposiciones en Romo. Al final han derribado la Nagusien Etxea y los edificios de Lope de Vega, pero hemos respondido como pueblo. Y seguiremos haciéndolo. ¡Aquí hay un pueblo digno! Eutsi Romo!

**Nerea Guijarrubia Garzia**

ALANGOKO AUZOKIDEA

Umeentzako eskaintza oso urria da Getxon. Beste herri batzuekin alderatzea besterik ez dago. Txikiguneak, aterpea duten jolaslekuak, programazioa kalean... Umeek ere eskaintza duina merezi dute. Eta, noski, euskaraz!

**Idoia Aranguren Onaindia**

VECINA DE LA HUMEDAD

Cada vez son más los comercios que bajan la persiana, y en las nuevas urbanizaciones no se habilitan lonjas para el pequeño comercio. Necesitamos cambiar el modelo de pueblo dormitorio y los hábitos de consumo.

**Julen Nafarrate Aurrekoetxea**

PORTU ZAHARREKO AUZOKIDEA

Algortako Portu Zaharra ez da postal bat. Pisu turistikoak areagotzen ari dira auzoan, eta horrek alokairuak garestitu ditu. Gentrifikazioari aurre egiteko neurriak hartz behar ditugu beranduegi izan baino lehen. Portu Zaharra bizirik!

Markak hautsiko ditugu!

Proposamen gehiago ditugu Tenemos más propuestas www.getxo.ehbildu.eus





Bizkaia 2023-2027

**Iker
Casanova
Alonso**

Bizkaiko
Ahaldun Nagusirako
hautagaia

Candidato
a Diputado General
de Bizkaia

BIZKAIAREN ETORKIZUNAREN ALDEKO APUSTU
IRMOA EGITEN DUGU, ETA, IKUSPEGI HORI EGIA
BIHUR DADIN, ANBIZIOZ ETA IKUSPEGI INTEGRAL
BATEKIN LAN EGINGO DUGU. HORRETARAKO,
LANA LAU ARLO NAGUSITAN EGITURATUKO
DUGU: ENPLEGUA, EKONOMIA SUSTAPENA,
INGURUMENA ETA POLITIKA SOZIALAK.

Bizkaia tiene que ser un territorio que se reinvente en torno a un modelo económico basado en la industria inteligente y sostenible, apostando por una economía industrial y del conocimiento; se debe vertebrar a través de un sistema de comunicación centrado en el transporte público, y reorganizarse urbanísticamente para alcanzar un diseño del territorio que combine armónicamente la actividad económica y la residencial, de tal forma que ofrezca a sus habitantes calidad de vida, un medio ambiente recuperado y la posibilidad de desarrollar proyectos vitales en un entorno de prosperidad, igualdad, justicia, cultura e inclusión.

*Bizkaia bidezkoa,
aurrerakoia, feminista,
ekologista, euskalduna...
eraiki nahi dugu!*



Reindustrialización inteligente

Tras una etapa en la que la industria parecía haber “pasado de moda” en favor de las economías de servicios, hoy se vuelve a reconocer de forma unánime el valor de una economía industrializada. La industria produce valor añadido. Los países y zonas industrializadas son más ricas que el resto. El empleo estable y generalmente bien remunerado que genera la industria es un factor de cohesión social. Bizkaia necesita recuperar la actividad industrial. Por eso hemos de apostar por una industria moderna, avanzada, tecnológica y que, además, incorpore la atención a factores sociales y medioambientales.



Politika sozial indartsuak eta zaintza ekosistemak

Pertsonen bizi baldintzak hobetuko dituzten politika berriak behar ditugu. Gaur egun, zaintza sistemako baliabideen hornidura eta antolamendua errepasatu besterik ez da egin behar defizit handia dagoela egiazatzeko (bai epeei dagokienez, bai ereduari dagokionez) eta pribatizazioa gero eta handiagoa dela ikusteko. Zaintza ekosistemak tokiko esperientziaren garapenean oinarritzen dira, arreta eredu pertsonalizatuagoak sortzen laguntzeko, eredu malguak eta komunitarioak, jendar-te berrikuntzatik pentsatuak, etxeko arreta bultzatuz eta jendarte eta osasun sistemaren arteko sinergiak hobetuz.

Maite duzun Bizkaia

EGINGO DUGU.



Iker
Casanova
Alonso

Bizkaiko
Ahaldun Nagusirako
hautagaia

Candidato
a Diputado General
de Bizkaia

*Zurekin batera,
inoiz baino gehiago
izango gara.*

Zuk bezala, Euskal Herria Bildun herri hobe batekin egiten dugu amets eta, horregatik, maite duzun Bizkaiaaren alde egingo dugu. Aldaketak datozen, eta gure esku dago aukerak baliatzea. Belaunaldi berrien etorkizuna, osasun publikoa, adinekoen zaintza eta zaintzen dituztenen lan-baldintzak, enplegua, gure herrien etorkizuna, industria, bizitzaren garestitzea, etab. EH Bilduk konpromisoa eta konponbideak eskaintzen ditu. Jendearen ohiko arazoei aurre egiteko konponbideak eta hori posible egiteko konpromisoa.

¡Es posible!

ehbildu

@Iker__Casanova
 bizkaia.ehbildu.eus